



Ginena gogoratuz, garena errotuz

2 hitzaurrea 3 Gaur Biharko 4 udal aurrekontua 5 herri baratzeak 6-7 400 urte 8 kontsumo kontzientzia berriak 9 hirigintza 10 kultura 11 laburrak 12 elkarriketa



> Atzo, gaur eta bihar

Urte berezia izan zen 1615koa, Beasainek bere herri izaera lortu zuen urtea izan baitzen. Ordura arte Beasain Villafrañcaren jurisdikziopean zegoen, harik eta 1615eko otsailaren 4an hain zuzen, Felipe III.a Erregearen Zedula batek Beasaini hiribildu-titulua eman zion arte.

400 urteren ondoren, 2015ean, garai hartako beasaindarren ahaleginaz oroitze konpromisoa daukagu, haien ahaleginari esker baikara beasaindar izenez eta izatez. Horregatik, urte osoan zehar 400. urteurrena ospatzeko ekitaldi desberdinak antolatutako ditugu. Lan honetarako ezinbestekoa izan da beste behin ere udal arlo guztien eta herriko zenbait eragile eta Igartzako Kultur Mahaiaren parte hartzea.

Urteurreneko ekintzei hasiera otsaila-

ren 4an emango diegu, aurkezpena egin ez eta hortik aurrera, ekintza ugari gozatzeko aukera izango dugu urte osoan. Oroimen ospakizun guztietara gonbidatzen zaituztegu.

Eta bilakaeraz ari garela aprobetxatuz, gogoratu gure herriaren hurrengo urteetako bilakaera zehaztuko duen *Gaur Biharko* prozesuan murgilduta gaudela. Beasaingo Plan Orokorren diagnostikoa osatzeko bilerak egiten ari gara, auzoz auzo eta gai desberdinen inguruan. Horietan parte hartzea ere gonbidatuta zaudete, denon artean erabaki behar dugulako gure herriaren etorkizuna.

•• Nondik gatozen
ezagutu eta nora joan
nahi dugun
erabakiko dugu
elkarrekin ••

El año 1615 fue importante para Beasain, ya que nuestra villa dejó de estar bajo la jurisdicción de Villafranca, cuando una Cédula del rey Felipe III nos dio el título de villa.

400 años después, en 2015, tenemos el compromiso de recordar el esfuerzo que hicieron aquellas personas, ya que, gracias a ellas, somos beasaindarras. Por eso, realizaremos diversas ceremonias durante todo el año. Para ello, ha sido indispensable la participación de todo el Ayuntamiento, de diferentes agentes y de la Mesa de Cultura de Igartza.

Y hablando de los cambios que ha tenido Beasain, os recordamos que seguimos con el proceso *Gaur Biharko*, para realizar el diagnóstico del Plan General.

Este mes realizaremos las segundas reuniones sobre los barrios y sobre temas específicos. Os invitamos a participar en dichas reuniones, para dibujar el futuro de nuestro pueblo juntos.

> inkesta Zure ustez zer aldatu da gehien 400 urte hauetan?



Irune Llorente

Herri osoa: dena. Trenaren etorrerak asko markatu zuen, eta gaur egun ere, asko erabiltzen dugu. Azken 25 urteetan asko aldatu dira errepideak, parkeak, oinezkoentzako guneak, zerbitzuak... Herri erosoagoa dugula esango nuke. Udazken Kulturalarekin eta halakoekin ere kultur eskaintza asko gehitu da azkenaldian. Hiri txiki bat da orain. Denetik du.



Kontxi Garcia

Mucho y a mejor. Para mí la industrialización ha sido el mayor cambio, y eso ha traído más edificación, urbanización, la unificación de las escuelas también me parece favorable.... Se puede decir que Beasain se ha convertido en la capital de Goierri. Hay mucha vida, está muy completo y lo veo muy bonito.



Pedro Perez

Eraikuntzan, urbanizazioan, tren, autobusa... aldaketa asko egon dira. Materialari dagokionean asko hobetu da, baina, orokorrean okerrera egin dugula uste dut: Solidaritatea galdu egin da. Nire ustez, egun dauden azpiegiturak mantendu behar lirateke, hobetu eta dauden bezala erabili behar genituzke. Gauza batzuk hobeto egin zitezkeen.



Plan Orokorrarekin lanean

Plan Orokorra osatzeko, Beasaingo Udala herritarrekin egiten ari den *Gaur Biharko* parte hartze prozesuaren barruan, herritarrekin eta gaika egin dira lehen bilerak, eta bigarren erronda hastear dago. 112 lagunek parte hartu dute auzokako eta gaikako bileretan, horietatik 70 gizonezkoak eta 42 emakumezkoak. Adinari dago-kionean, gehiengo 46 urtetik gorakoa izan da.

Auzokako lehen erronda honetan, mugikortasunaren eta ekipamenduen inguruan aritu dira, batez ere. Perfil ezberdinetako jendea eta iritzi ezberdinak egon diren arren, iritzi gehienak sintonian doazela esan daiteke: ekipamenduak beste herri batzuekin elkarbanatzea proposatu dute herritarrek, ekipamendu ezberdinen inguruko proposamenak egin dituzte...

Parte hartzearen kalitatea oso ona izan da eta giro onean egin dira bilerak, eta parte hartzaileek eurek ere oso ongi baloratu dute prozesua, bileren amaieran erantzun dituzten galdeketa-tan.

La primera fase del proceso de participación sobre el Plan General ha transcurrido positivamente. En las reuniones han participado 112 personas: 70 hombres y 42 mujeres. En lo que respecta a la edad, la mayoría de las personas han sido mayores de 46 años. Se ha hablado, sobre todo de movilidad y de los equipamientos.

El Ayuntamiento hace un llamamiento a toda la ciudadanía, y en especial a jóvenes y mujeres, a participar en las reuniones que se realizarán durante el mes de febrero.



Miren Lopetegi

Ni erdiguneko bileran izan nintzen. Plan Orokorra zer den eta zer helburu dituen aurkeztu zigutenean, taldeka, auzoan eta herrian zeuden problematikak aztertu genituen. Ez zen jende asko izan eta lastima da; zenbait eta jende gehiago, iritzi gehiago biltzen direlako. Zuri okurrizten ez zaizkizun gaiak proposa ditzake jendeak. Berri-ero ere joango naiz beste bileraren batera, besterik ezean, gainerakoek zer esaten duten entzutera.

> Bileren egutegia > Calendario de reuniones

Bilera guztiak 18:30ean izango dira.

> Otsailak 2, astelehena.

Landa eremua. **Barrios rurales**.
Arriarango Intxaurre elkartearen.

> Otsailak 3, asteartea.

Igartza auzoa, Zapatari kalera arte.
Barrio Igartza. Igartzako jauregian.

> Otsailak 9, astelehena.

Ezkiaga auzoa (J.M. Iturriotz kaletik Mariaratsera).
Barrio Ezkiaga. Murumendi ikastetxean.

> Otsailak 10, asteartea. Ingurumena. **Medio ambiente**. Udaletxeko batzar aretoan.

> Otsailak 11, asteazkena. Etxebizitza. **Vivienda**. Udaletxeko batzar aretoan.

> Otsailak 12, osteguna.

Erdigunea (Zapatari kaletik Erauskin plazara). **Centro**. Udaletxeko batzar aretoan.

> Otsailak 18, asteazkena.

Erdigunea (Erauskin plazatik J.M. Iturriotz kalera). **Centro**. Udaletxeko batzar aretoan.

> Otsailak 23, astelehena. Mugikortasuna. **Movilidad**. Udaletxeko batzar aretoan.

> Otsailak 24, asteartea. Ekipamenduak eta espazio publikoa.

Equipamientos y espacio público. Udaletxeko batzar aretoan.

> Otsailak 25, asteazkena.

Garapen ekonomikoa. **Desarrollo económico**. Udaletxeko batzar aretoan.



Fede Toledo

Yo estuve en la reunión de Ezkiaga. Creo que la participación de quienes fuimos a aquella reunión fue muy buena, pero eso sí; escasa. Creo que no fue mucha gente, viendo la importancia que puede tener el tema para Beasain. Había gente de diferentes tendencias, pero todo fue muy bien. Los moderadores que había en la reunión nos guiaron e informaron de lo que íbamos a hacer ese día y supieron llevar bien la reunión, dándonos a la vez absoluta libertad para hablar.

Bileretan haurtzaindegi zerbitzua egongo da. Aurrez izena eman behar da: 943 028 108 - komunikazioa@beasain.net

2015eko udal aurrekontua onartuta

Beaingo Udalak 2015erako udal aurrekontua onartu du. Azken osoko bilkuran onartu zuten aurtengo udal aurrekontua, ia 16 milioi eurokoa, eta dagoeneko zehaztu dira urtean zehar Beasainen egingo diren proiektuak zein izango diren. Gobernu Taldearen aldeko botoekin onartu dute aurtengorako aurrekontua.

Pertsonen ongizatean oinarritutako aurrekontua izango da, parte hartzea, bizikidetzeta eta irisgarritasuna bultzatuko dituen eta Beasain iraunkor bat sustatuko duena. Alor eta sektore ezberdinetan egingo ditu udalak inbertsioak, herriko auzo, kale eta gune ezberdinetan. Horien artean berderatzi proiektu nabarmentzen dira.

El Ayuntamiento de Beasain contará con casi 16 millones de euros en 2015. Los presupuestos para este año se acepta-

Udal aurrekontua	
Ogasuna	3.563.269 euro
Ongizatea	1.842.077 euro
Euskara	458.512 euro
Aniztasuna	12.230 euro
Berdintasuna	54.154 euro
Parte hartzea	20.000 euro
Hezkuntza	878.196 euro
Kultura.....	1.205.591 euro
Hirigintza	1.744.674 euro
Gaztedia	241.566 euro
Antolakuntza	1.368.206 euro
Landa.....	250.800 euro
Zerbitzuak.....	4.045.384 euro
Ingurugiroa.....	83.170 euro
Merkataritza.....	115.419 euro
Guztira.....	15.945.253 euro

ron en el último pleno, con los votos a favor del Equipo de Gobierno, y el Ayuntamiento ya tiene definidos los proyectos en los que invertirá el presupuesto de este año.

Es un presupuesto basado en el bienestar de las personas, que impulsará la parti-

cipación, la accesibilidad y la convivencia entre la ciudadanía y se promoverá un Beasain sostenible. El Ayuntamiento elaborará distintos proyectos en los barrios, calles y puntos de encuentro del municipio, entre los que se resaltan nueve.



100.000€

Panel akustikoak Nafarroa etorbidean.

Paneles acústicos en Nafarroa etorbidea.



100.000€

Herri baratzak.
Huertas municipales.



575.000€

Elkarteei diru laguntzak.
Ayudas a asociaciones.



400.000€

Olaran-Joan XXIII igogailua.
Ascensor Olaran-Joan XXIII.



150.000€

Auzoetako lanak.
Trabajos en los barrios.



878.196€

Hezkuntza.
Educación.



103.000€

Argiztapena.
Luminaria.



40.000€

400. urteurreneko ospakizunak.
Actos del 400 aniversario.



60.000€

Ekintzaileentzako bulegoak.
Oficinas para emprendedores.

Herri baratzeak, hiri nekazaritza lantzeko herritarrentzako aukera

Beasaingo Udalak, 16 urtetik gorako beasaindarrentzat baratzeak jarriko ditu eskuragai. 17.000 metro karratuko eremu bat atonduko du horretarako, Salbatore auzoan, Ittola baserriaren aurrean.

Gero eta hedatuagoa den ingurumenarekiko eta elikadurarekiko sentsibilizazioari erantzuna ematearren, hiri nekazaritza ahalbidetuko duten baratzeak egokitzeko egitasmoa landu nahi du Beasaingo Udalak. Nekazaritza jardura lantzeko ez ezik, ingurumena, ekologia, autokontsumoa edo elikadura osasuntsuaren inguruko heziketa eta sentsibilizazioa garatzeko elkargune bat egokitzea da helburua, aisialdirako gune berri bat sortuz.

Horretarako, Salbatore auzoan 10.000 metro karratuko eremua jarriko du Udalak herritarren eskura. Bertan, herritarrek norbanako edo elkarte bezala eskatu ahal izango dituzte euren lur zatia. Eskaria norbanako bezala egiten dutenentzat, lur zati bakoitzak 40 metro karratu inguru izango ditu, eta guztira 80 baratze-eremu egongo dira. Horieta-ko lau, gainera, egokituak izango dira.

Elkarte bezala izena ematen dutenek, berriz, 80 metro karratuko baratze-zatia izango dituzte aukeran, eta gutxi gorabehera lau baratze egongo direla kalkulatu dute.



Baratzeak egingo dituzten gune horretan, eremua egokitzeko lur mugimenduak eta baratzerako lur prestaketak egingo dituzte. Bestetik, bideak eta azpiegiturak ere egingo dituzte, aurrekontuak ahalbidetzen duen neurrian, gune komunak egokitzeko lanak, txabola, ur hornidura sarea, drainatze sarea, argindar sarea, saneamendu sarea, askak, konpostagailua, hiri altzaria zein lorezaintza osagaiak jarriko dituzte.

Orain, baratze hauetako bat eduki nahi dutenek, eskaera orriak bete behar-ko ditu, otsailaren 28a baino lehen.

Otsailaren 28a baino lehen izena eman

Eskaera orriak udaletxeko webgunean edo udaletxeko harreran egongo dira eskuragai. 16 urtetik gorako beasaindarrrek eska ditzakete baratzeak, eta eskatzaileek edo euren familiako kideek ezin-ago dute antzerako lursailik izan.

El Ayuntamiento pondrá a disposición de la ciudadanía un terreno de 10.000 metros cuadrados para huertas en la zona del caserío Ittola, en el barrio Salbatore.

Se harán 80 (4 de ellas adaptadas) parcelas de 40 metros cuadrados para particulares, y aquellas personas que quieran optar por una huerta en grupo, tendrán parcelas de 80 metros cuadrados, y se calcula que se harán unas 4.

El Ayuntamiento realizará diversas mejoras en el terreno y las instalaciones para que la gente pueda utilizar las huertas con comodidad, tales como movimientos de tierra, casetas, abasteci-

miento de sistemas de riego, de luz, sistemas de drenaje, abrevaderos...

Para hacer la petición de las huertas, hay que rellenar un formulario y cumplir los siguientes requisitos: tener cumplidos los 16 años, residir en el municipio desde hace un año, no tener ninguna deuda con el Ayuntamiento y no tener ninguna huerta a disposición (o de algún familiar).

Los formularios se pueden obtener en la página web *beasain.eus* o en la oficina de Atención a la ciudadanía, y se tendrán que entregar o enviar al Ayuntamiento antes del 28 de febrero.

Nork eska dezake baratze bat?

- > 16 urte baino gehiago izatea.
- > Udalerrian erroldatua egotea.
- > Beasaingo Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak egunean edukitzea.
- > Eskatzailea edo bere familia-unitateko kideren batek ez edukitzea Beasainen nekazaritza-jarduerako egokia den lursailik.

Beasainek 400 urte: Ginena gogoratuz, garena errotuz

400 urte beteko dira otsailaren 4an Beasainek hiribildu titulua lortu zuenetik. Hainbat ekintza egingo dira urteurren biribilaren harira, egunean bertan, datozenetan eta baita urte osoan zehar ere.

Beasainek Felipe III.ari hiribildu titulua erosi eta Villafrancaren menpean egoteari utzi zionetik 400 urte igaro dira jada. Gertakizun historiko honen garrantzia ikusirik, urte osorako egitaraua ari da antolatzen Beasaingo Udala, udal arlo guztien eta herriko zenbait eragile eta Igartzako Kultura Mahaiaren laguntzarekin.

Bide horretan, Martin Garciak 22. Beasaingo Paperak argitaratu zuen: *Beasaingo herrigunea 1615ean eta bere bilakaera*. Beasaingo historia ezagutzeaz gain, beasaindartsun sentimendua indartu nahi da ekitaldi hauekin, eta inmigrazio prozesuak herritarren arteko bizi-kidetzan zenbateko eragina izan zuen ere aztertu nahi du Udalak.

Herritarren ekarpen bila

Herriarren urte hauetako historia jasotzeko, herritar denek herriaz duten pertzepzioa jasotzea oso garrantzitsua da Udalerentzat. Horregatik, urteurrenaren harira, egingo diren ekintzetan herritarrek parte hartzea bilatzen da, eta baita eu-



ren ekarpenak eta proposamenak egiteko ere. Herritarrei, dituzten argazki zaharrak, informazioa, ekarpenak, iritziak... bidaltzeko eskatzen du Udalak, kultura@beasain.eus helbidera, 943 02 80 65era deituta edo udaletxeko Kultura sailera inguratuta.

Urteurreneko ekintzei hasiera otsailaren 4an emango zaie, aurkezpena eginenez, egun horretantxe jaso baitzuen Beasainek duela 400 urte hiribildu titulua.

Horrez gain, urte osoan zehar herrian egiten diren ekintzetan, presente egongo da urteurren biribila, modu batera edo bestera.

Logotipo berria

Logo bat ere prestatu da ekintza guztiei lotura edo urteurrenaren erreferentzia bat ematearren. Logo hau, otsailaren 4ko aurkezpen ekitaldian aurkeztuko dute.

El 4 de febrero se cumplirán 400 años desde que Beasain dejó de estar bajo el dominio de Villafranca. Viendo la importancia de este hecho para el municipio, el Ayuntamiento está creando un programa de actividades para todo el año, junto con diferentes agentes y la Mesa de Cultura de Igartza.

El Ayuntamiento quiere dar a conocer nuestra historia e incentivar el sentimiento de ser beasaindarra, además de analizar la influencia que han tenido los procesos de inmigración en la convivencia entre vecinos.

En ese sentido, Martin Garcia ha publicado un nuevo Beasaingo Paperak, que cuenta cómo era la villa en 1615,

Ekarpenak

> 400 urte hauetako argazki zaharrak, informazioa, ekarpenak, iritziak... jaso nahi dira.

> Kalean jarriko diren mahaietan, udaletxeko kultura sailean, kultura@beasain.eus helbidean edo 943 02 80 65 zenbakian jasoko dira.

y su transformación. Los actos oficiales comenzarán el 4 de febrero, día exacto del centenario, y se alargarán hasta el 7.

Pero las celebraciones se extenderán todo el año, haciendo presente el centerio en casi todas las actividades que se realicen.

Además, se quieren recoger todo tipo de fotos, información, aportaciones, opiniones... de estos 400 años de Beasain.

Para ello, se pondrán una mesa en diversas actividades en la calle, y también se podrán hacer aportaciones en el correo kultura@beasain.eus, el número 943 02 80 65 o en el departamento de Cultura del Ayuntamiento.

egitaraua

04 asteazkena

19:30 400. urteurreneko aurkezpen ekitaldia Zubimuzun eta Santa Agedako koplak abestu.

05 osteguna

09:30 Goizeresi Txistulari Taldearen eta Musika Eskolako Banda eta txistulari banda.

09:30 Kofradien harrera eta bilkura ongietorria ahogozagarriekin. Igartzako jauregian.

10:20 XXX. Odolki Kofradiaren biltzarra. Igartzati hasita ohiko ibilbidea, Musika Eskolako Bandak, txistulariek eta dantzariak lagunduta. San Martinen estatutara iritsi eta lore eskaintza egingo diote. Ondoren, ohorezko aurrekua dantzatuko dute.

11:00 Meza Nagusia. Andre Mari Zerutuaren parrokian.

12:00 Musika Eskolako Bandaren emanaldia. Loinazko San Martin plazan.

12:00 Kofradiaren XXX. Kapitularen ospakizuna eta Ohorezko Kofradiakideen



izendapena. Loinazko San Martin plazan. Ondoren, kofradeekin batera, herritar guztiak Udalak eskainitako lunch-era gonbidatuta zaudete.

14:30 Adiskidetasun bazkaria Igartzako jauregian.

18:30 Bentazarreko Mutiko Alaiak taldearekin kalejira herriko kaleetatik. Igartzako Monumentu Multzotik hasita, Bideluze plazaraino.

06 ostirala

17:30 Txilibutxofen eskutik gaztetxoentzat txapak egiteko tailerra, 400. urteurrenaren irudia erabiliz.

18:30-20:00 Mugarri ezberdinen inguruan herritarren ekarpen mahaia ipiniko da Zubimuzu plazan. 400. urteurreneko zapiak ere egongo dira salgai.

07 larunbata

11:00 Igartzako bisita gidatu antzetzua, Igartzako Monumentu Multzoan.

16:00 Aurtzaka taldearen dantza emanaldia, Usurbe antzokian.

> Beasainen historia

> Villafrancarekiko bereizketa prozesua garatzeko bi akuilu egon ziren: Erret Haziendak dirua biltzeko zeukan beharra eta hiribilduen artean piztu zen lehia probintziako foru-erakundeen kontrola eskuratzeko.

> 1614 urtean, Hazienda-Kontseiluaren bidez, Villafrancako hiribildutik bereizketa emateko eskatu zuen Beasainek. Hau jakinik, Villafranca ez zen besoak gurutzatuta gelditu eta bere maiestatearen kontseiluko epaileari hogeita bi galderaz osatutako txosten bat zuzendu zion, bere menpeko herrietako ordezkariak erantzuteko eskatuz. 1614ko urriaren 8an, Beasaingo ordezkariak zegozkien galderak erantzun zituzten eta horrela bizkortu zen bereizketa prozesua.

> 1615eko urtarrilaren 26an, akordio bat zehaztu zuten hiribildu tituluaren inguruan. Erregeak baietza eman zion Beasaini: Villafrancako hiribildutik bereizi eta eskumen osoz hiribildu bilakatuko zen eta Probintziako Batzar Nagusietara bere prokuradoreak bidaltzeko eskubidea izango zuen eta bere ofizial propioak. Trukean, 30 egunean, Beasainek herritar bakoitzeko 25 dukat ordaintzeko konpromisioa hartu zuen.

> 1615eko otsailaren 4an, Felipe III.a erregearen Zedula batek Beasaini hiribildu titulu eman zion.

> Dos factores favorecieron el desarrollo del proceso de exención: las necesidades de la Hacienda Real para recaudar y la lucha entre villas por el control de las instituciones forales de la provincia.

> En 1614, el procurador de Beasain solicitó al rey, a través del Consejo de Hacienda, que le fuera concedida dicha exención. Villafranca no quedó impasible y dirigió al juez del Consejo un informe con veintidós interrogantes, los cuales deberían ser respondidos por Beasain. El 8 de octubre de 1614, representantes de Beasain respondieron las cuestiones y se aceleró el proceso de desanexión.

> El 26 de enero de 1615 se concreta un acuerdo de cara a la concesión de la villa. El monarca accedió eximir a Beasain de la villa de Villafranca concediéndole el título de villa con plena jurisdicción. Además, tendría derecho para enviar a sus procuradores a las Juntas Generales de la Provincia y dispondría así de sus propios oficiales encargados de la administración y gobierno de la villa. A cambio, en un plazo de 30 días, Beasain se comprometía a pagar 25 ducados por cada persona de municipio.

> El 4 de febrero de 1615, una Cédula emitida por el rey Felipe III otorga a Beasain el título de villa.



Kontsumo kontzientzia berria bultzatuko dute Beasainen

Beste kontsumo bide batzuk bultzatzeko aukerak herritarrei aurkezteko helburuarekin Kontsumo kontzientzia berriak egitasmoa egingo du Udalak beasaindarrei zuzenduta. Iaz hasitako bideari jarraituz gauzatuko da egitasmoa, kontsumoarekin lotutako hainbat alorretara bideratuta dagoena: energia, osasuna, elikadura, eraikuntza... Helburua argia da, kontsumitzen dena modu zentzudunagoan nola kontsumitu daitekeen beasaindarrei erakustea. Gaur egungo kontsumo joerak aztertu, eta kontsumo hori adar ezberdinekin lotu zitekeela ikusita jarri zen lanean Udala, eta alor eta gai ezberdinak lotuz, bi asteko egitaraua prestatu du. Hitzaldiak, dokumentala edo erakustaldiak egongo dira, denak Igartzako Momumentu Multzoan.

GoiEnerrekin antolatuta duten saioaren barnean, adibidez, herritarrek beren etxeko argindar fakturak eraman ahalko dituzte Tolosaldea LH institutuko ikasleek aztertu ditzaten. Egitarauak hartuko dituen bi asteburuetan, bestalde, ekintza irekiak egingo dituzte, eta tartean Igartza Momumentu Multzoa zaharberritzerakoan jarraitu zen prozesua azalduko dute. Energiaren inguruko tailerrak ere egongo dira.

> Egitaraua

> **Otsailak 9, astelehena.** «Bide berriak» (Bizilur) dokumentala, hitzaldi gelan, 18:30.

> **Otsailak 11, asteazkena.** Hitzaldia: «Elikadura osasuntsua» (Hurbileko jalea), patioan, 18:30.

> **Otsailak 13, ostirala.** Hitzaldia: «Bioeraikuntza» (Oreka bioarkitektura eta BioEtxe), hitzaldi gelan, 18:30.

> **Otsailak 15, igandea.** Burdinaren eguna, burdinolan, 11:00-14:00.

> **Otsailak 18, asteazkena.** Hitzaldia (merkatariatzat): «Energia kontsumitzeko eredu berri bat» (GoiEner), hitzaldi gelan, 15:00.

> **Otsailak 19, osteguna.** Hitzaldia (euskara ikasleentzat): «Energia kontsumitzeko eredu berri bat» (GoiEner), hitzaldi gelan, 09:30.

> **Otsailak 20, ostirala.** Etxeko energia kontsumoaren gastua aztertzeke zerbitzua (Tolosaldea LH institutua), burdinolan, 17:00. Ondoren hitzaldia: «Energia kontsumitzeko eredu berri bat» (GoiEner), patioan, 18:30.

> **Otsailak 22, igandea.** Energiaren ibilbidea Igartzan (Tolosaldea LH institutua) eta tailerrak burdinolan, 12:00.

Con el objetivo de fomentar e impulsar nuevas vías de consumo, el Ayuntamiento de Beasain ha elaborado un programa dirigido a la ciudadanía, programa basado en las nuevas formas de consumo.

Se han analizado distintos campos de consumo –energía, salud, alimentación, construcción...–, y basándose en los resultados obtenidos, se han creado distintas actividades dirigidas a todos los y las beasaindarras. Así, se han organizado charlas informativas, proyección de un documental, análisis de consumo eléctrico... Todas ellas se llevarán a cabo en el Conjunto Monumental de Igartza –palacio y ferrería–, desde el 9 de febrero hasta el 22 de febrero. Mediante estas actividades, se le da comienzo a un proyecto que se empezó a elaborar el año pasado. Una de las actividades más representativas por ejemplo, llegará de la mano de GoiEner. En colaboración con el alumnado del Instituto Tolosaldea, se ofrecerá la opción de estudiar las facturas energéticas de las viviendas. En los dos fines de semana que entran dentro del programa, se realizarán distintas actividades, donde se podrá conocer, por ejemplo, como se rehabilitó el palacio de Igartza.

Harrera bulego berria jarriko da

Udalak harrera bulego berria jarriko du martxan datorren apiril-rako. Gaur egun kultura eta euskara sailak dauden tokian egongo da, eta sarrera plaza azpian izango du. Harrera zerbitzua zentralizatu nahi du Udalak herritarrek izapide ahalik eta gehien bertan egin ditzaten.

Beste udalerrri batzuetako adibideak ezagutzen izan direla azaldu du Aitor Larburu Udal Antolakuntzako batzordeburuak, ahalik eta harrera bulego egokiena martxan jartzeko. «Herritarrei lana erraztea da helburua, hara eta hona ibili



beharrean zerbitzu guztiak bateratuta eskaintzeko», eta herritarren irisgarritasuna ere hobetuko da aldaketarekin.

El Ayuntamiento unificará todos sus servicios en la nueva oficina de atención a la ciudadanía que comenzará a funcionar en abril. La nueva oficina facilitará el acceso a los servicios del Ayuntamiento, ya que la entrada estará situada en los bajos de la plaza San Martín de Loinaz. Según ha explicado Aitor Larburu, el Ayuntamiento de Beasain ha seguido los ejemplos de otros ayuntamientos para elaborar este proyecto.

Las personas que trabajarán en la oficina se están preparando para ofrecer el nuevo servicio.

Barrendain ari da itxura hartzen

Nafarroa Etorbideko eta Barrendain plazako harrizko lauzak kendu eta asfalto inpresoa botako dute, inguruari plaza izaera eman eta oinezkoek eta mugikortasunak lehentasuna izan dezaten.

Denbora zen ia Barrendain plaza-ko eta Nafarroa etorbideko zorua egoera txarrean zegoela. Harrizko lauzak mugituta zeuden eta trabagari eragiten zuten oinezkoen eta ibilgailu gidarien artean. Hala, Beasaingo Udala inguru berritzeko lanak egiten hasi da.

Bestalde, orain arte Barrendain plazan egon den biribilgunea zabaldu egingo dute eta autobus geltokiari izaera propioa emango diote. Gainera, lanek eragina izango duten inguru guztian, lurzorua espaloia ren parera igoko dute. Aurrez inguruan eginda zeuden lanak ere kontuan izan ditu Udalak, eta hala, lanak amaitutakoan semaforo bidez kontrolatuko dute Nafarroa etorbidera sarre- ra, egun Loinazko San Martin plazara joateko sistema berdinarekin.

Plaza izaera izango du inguruak

Beasaingo Udalaren helburua Nafarroa etorbideari eta Barrendain plaza inguruari plaza izaera ematea da. «Pasokogune bat da, herritarrentzako espazio bat, eta hori berreskuratuz nahi da; gainera, oinezkoek lehentasuna izatea da helburua».



Dado el mal estado de los adoquines de la plaza Barrendain y la calle Nafarroa etorbidea, el Ayuntamiento de Beasain está realizando trabajos de mejora en esa zona. Se quitarán todos los adoquines y se harán trabajos de saneamiento, con el objetivo de terminar con los problemas precedentes; en el suelo se echará asfalto impreso.

Tanto en Nafarroa etorbidea como en la plaza Barrendain se llevará a cabo el mismo procedimiento, y en ambas zonas

se levantará el suelo hasta la par de las aceras.

Según ha explicado Aitor Larburu, el objetivo del Ayuntamiento es dar prioridad al viandante y que la zona tome carácter de plaza y sea un espacio para las personas». Para ello, una vez terminadas las obras, se controlara el tráfico de vehículos mediante un semáforo. El funcionamiento de dicho semáforo será similar al que esta actualmente dirigido hacia la plaza San Martin.

Herri kirolletako teknifikazio guneko obrak bukatzeaz daude

Antzizar kiroldegian kokatuko den Herri Kiroletako Teknifikazio Zentroko lanak amaitzeaz daude, eta laster egongo da erabilgarri. 25x12 metroko pista bat eraiki dute, zorutik sabai- ra arte 7,2 metroko altuera duena, eta albo batean materiala gordetzeko biltegiekin. Aldagelak ere atontzen ari dira.

Beasaingo Udalak beti bultzatu izan ditu herri kirolak, eta horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, gune honen helburua herri kirolak sustatzea



izango da, batez ere gazteen artean eta eskola kirolean.

Las obras del centro de tecnificación para el deporte rural que el Ayuntamiento y la Diputación de Gipuzkoa están construyendo en Antzizar está llegando a su fin, por lo que pronto se podrá utilizar la pista de 25x12 metros que han construido. El Ayuntamiento siempre ha apostado por el deporte rural y este proyecto es un ejemplo más. El objetivo es impulsar las distintas modalidades de deporte rural entre los más jóvenes y dentro del deporte escolar.

Erromeri Bira, herrian

“Dantzan ez dakitenek, lotsarik gabe, ikasteko eta gozatzeko gune bat izatea nahi dugu»

Dentro de la Erromeri Bira de Goierri, Aurtzaka y Ostadar han organizado una romería en Beasain bajo la plaza San Martín de Loinaz, el 14 de febrero. El objetivo es que la gente lo pase bien y aprenda a bailar.

Pasa den urteko irailetik ari dira egiten erromeriak Goierriko herrietan. Oian-gun, Ordizian, egin zuten lehena, urrian Zaldibian, azaroan Araman eta otsailaren 14an Beasainen txanda izango da. Aurtzaka eta Ostadar Dantza Taldeak arduratu dira erromeria antolatzeaz, baina herritar guztiei luzatu diete dantzarako gonbita. 19:30ean hasiko da erromeria, Loinazko San Martín plazaren azpian.

Zer egingo duzue Beasaingo erromerian?

Ikutz Garmendia: Guri 5 talde gabiriarak eta Musika Eskolako trikitilariak erromeria eskainiko dute, eta bertarutzen diren denek dantza egitea gustatuko litzaiz-

guke. Tabernak ere badaude gertu, gainera. Beraz, nahi duenak trago bat hartzeko aukera ere gertu izango du.

Dantza ikastarorik emateko eskatu al du jendeak, Erromeri Biran parte hartu aurretik ikasteko?

Izaskun Salazar. Bai. Baina helburua ez da hori: Helburua, garai batean bezala, jendeak plazan dantza eginez eta eginez ikastea da.

Erromeria eta dantza emanaldiak bereizi nahi dituzue, beraz.

I.G.: Bai. Erakustaldiak jada egiten ditugu urtean zehar. Honek ezberdina izan nahi du. Ez dugu jendea begira egoterik nahi; dantzan nahi ditugu denak. Gozatzeko eta ikasten.



Lotsak etxean utzita joan behar da, beraz.

I.S.: Hala nahi genuke. Umeak dantzan jartzea erraza da, baina helduek ere gauza bera egitea nahi genuke: lotsak utzi eta begiratu eta dantzatu, ikastea eta gozatea. Historian zehar ere halaxe egin da: horretan oinarritu da dantzaren transmisioa, urte askoan.

Ondo pasatzeari garrantzia eman nahi diozue.

I.S.: Guk ere xumeago dantza egingo dugu, ez da emanaldi bat. Denok ezberdin dantza egiten dugu, eta ez dadila inor lotsaz gelditu, ez dakielako. Guri kopiatuz ikas dezakete, dantza eginez gozatzearekin batera.

Erasmus+ programa ezagutzen?

Erasmus+ programaren inguruko saio informatiboa egingo dute otsailaren 14an Beasainen. Programa zer den eta eskaintzen dituen ekintzen eta aukeren berri emango dute Kaebnai elkarteak, eta Erasmus+ programaren barruan lantzen diren proiektuez hitz egingo dute. Besteak beste, Europar Bolondres Zerbitzua eta Gazte Trukaketa programa zertan datzan azalduko dute.

Goizeko saioa nerabeentzat eta beraien gurasoentzat zuzenduta egongo da eta teorikoa izango dela aurreratu dute Kaebnai elkarteak: «Azalpenak emango ditugu, eta dauden zalantzak argitu». Arratsaldeko saioa, beriz,

praktikoagoa izango da eta 18 eta 30 urte bitartekok gazteei zuzenduta dago.

La asociación Kaebnai ofrecerá una conferencia en Beasain sobre el programa Erasmus+. Será el 14 de febrero, y estará dividido en dos partes. La sesión de la mañana será teórica y se explicarán las actividades y opciones que ofrece el programa. Por lo contrario, la sesión de la tarde será práctica, y se hablará de proyectos elaborados por participantes del programa Erasmus+. Los asistentes podrán comentar ideas o proyectos que quieran llevar a cabo, y como pueden hacerlo.

Egitaraua

- > 11:00-12:00. Erasmus+ programaren aurkezpena. Ekintzak eta aukerak.
- > 13:00-14:00. Europar Bolondres Zerbitzuaren eta Gazte Trukaketa esperientzien aurkezpena.
- > 16:00. Erasmus+ programaren aurkezpena: Ekintzak eta aukerak.
- > 16:30-17:30. Proiektuen sorkuntzan sakontzea, adibideen azalpena.
- 18:00-19:00. Proiektuen sorkuntzan jarraibide praktikoak.

Loinatz jaiak antolatzeko bilera otsailaren 19an

Loinatz festak antolatzen hasteko momentua iritsi da. Horretarako, ohi bezala, batzorde irekiak antolatuko dira herritarrek eta elkarteek beraien proposamenak egin ditzaten. Otsailaren 19an izango da lehenengo bilera, 19:00etan, Udaletxeko batzar aretoan. Udaletik herritarrek gonbidatu nahi dituzte bileretara, batez ere gazteak.

El 19 de febrero, a las 19:00, en el salón de plenos del Ayuntamiento, se realizará la primera reunión de la comisión de fiestas.

Korrika 19 antolatzeko batzordea martxan da



Martxoaren 19an Urepelen (Nafarroa Beherea) hasi eta hamar egun beranduago Bilbora iritsiko da Korrika 19, Euskaldun lemapean. Beasaindik ere pasatuko da AEK-k antolatutako euskararen aldeko Korrika; martxoaren 22an aletgia.

Korrikaren inguruko antolaketa egiteko herrietan batzordeak sortu dira; eta Beasainen ere bai. Korrikako materiala ere salgai dago Beasaingo Herri Dendan (San Inazio kalea). Korrikaren inguruko informazioa eskuratzeko, ondorengo bloga kontsulta daiteke: <http://goiztiri.blogspot.com.es>.

El 19 de marzo comenzará una nueva edición de Korrika 19 en Urepel y terminará en Bilbo, el 29 de marzo. A Beasain llegará el 22 de marzo. Para organizar la Korrika, en diferentes municipios AEK ha organizado comisiones de Korrika, y la de Beasain ya está en marcha.

Además, el material de Korrika está a la venta en la Herri Denda (calle San Inazio).

Egutegi fiskala

Zergen egutegi fiskalari dagokionez, bi zerga ordaindu beharko dira: otsailaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, Trakzio Mekanikodun ibilgailuen Zerga, eta otsailaren 2tik 28ra Azokako 1. hiru hilekoari dagokiona.

Respecto al calendario fiscal de los tributos, se deberán pagar dos impuestos: el Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica (del 1 de febrero al 31 de marzo) y el tributo del primer trimestre del Mercado (del 2 al 28 de febrero).



Parte hartzearen webgunea

Beasaingo Udalak parte hartzearekin lotutako webgune berria jarri du martxan: partaidetza.beasain.org. Parte hartzearekin zerikusia duten prozesuak eta egitasmoak jarraitzeko aukera izango da bertan.

El Ayuntamiento de Beasain tiene una nueva página web, partaidetza.beasain.org. En ella se podrán consultar los procesos e iniciativas de participación que se realizan en el municipio.

Liburu digitalak maileguan

Euskadiko Liburutegi Digitala martxan dago dagoeneko. 250 udal liburutegietako –Beasaingoan barne– erabiltzaileek 3.000 liburu digitaletik gora hartu ditzakete maileguan. Zerbitzu hori erabiltzen hasteko, liburutegira joan behar da eLiburutegian alta eskatzeko. Behin pasahitza jaso ondoren, irakurlea eLiburutegia plataforman sar daiteke. Erabiltzaile bakoitzak bi liburu hartu ahal izango ditu aldi berean eta gehenez 21 eguneko epea izango du irakurtzeko.

eLiburutegia, la Biblioteca Digital de Euskadi, ofrece libros digitales en préstamo. Los socios y socias de las 250 bibliotecas municipales que componen la Red de Lectura Pública de Euskadi (incluida la de Beasain) que estén interesados en usar este nuevo servicio deben acudir a su biblioteca y pedir el alta en la plataforma eLiburutegia.

Mintzalaguna

Eman izena eta bizi euskaraz

Apúntate y vive en euskara

Udaleko kultura eta euskara
Saila: 943 02 80 63.

Ayuntamiento:
943 02 80 63.

Udal Euskaltegia:
943 02 81 00.

Udal Euskaltegia:
943 02 81 00.

Goiztiri AEK:
943 88 93 40.

Goiztiri AEK:
943 88 93 40.

ebpn@beasain.net - euskaltegia@beasain.net - beasain@aeq.org



Ondare ukiezinina

“Joskintzak garrantzia handia izan du herriaren identitatea eta baloreak eraikitzerakoan»

Elena y Diego se encargan de recoger información sobre el patrimonio inmaterial del municipio. Para eso, han recogido más de 163 oficios y 1.500 profesiones, y estudian el efecto que tuvieron los sastres y las modistas en los valores e identidad de Beasain.

Beasaingo Udalak, Goiekirekin eta Lanbiderekin batera, Ondare Ukiezinaren inguruko 300 orduko kurtsoa jarri zuen martxan, langabetuen formakuntza espezializatua sustatzeko helburuarekin. Udalaren konpromisoaren ondorioz, bi pertsona lanean ari dira gai horren inguruan, pasa den irailetik.

Zer da ondasun ukiezinina, eta zertarako ari zarete aztertzen?

Diego Gomez: Egon diren aldatetek herri baten izaera nola aldatzen duten aztertzean datza, lehen egiten zirenak baliolan jartzeko eta herriaren balore eta identitatea eraikitzerakoan oso garrantzitsuak direlako.

Nola ari zarete hori aztertzen?

Elena Diez: Udalak ogibide ezberdinak aztertzea proposatu zigun, eta hori oina-

ri hartuta, jostunen lanbidean sakontzen ari gara. Lehenik, dokumentatu egin gara gaiaren inguruan. Gero datu basea sortu dugu, bertan pertsonen, ogibideen eta lanbideen inbentarioa eginez. 163 ogibide eta 1.500 profesional ditugu datu basean. Artxiboak ere aztertu ditugu, gure amek ere asko lagundu digute tira

•• Nos parece que el de sastrer o modista puede ser una fuente de ingresos para la gente que está en paro, si se ofrece exclusividad ••

egiten nondik hasi jakiteko... Profesional horiekin gelditu eta elkarrizketak egin dizkiegu, bideoz grabatuz.

Zer garaitako egoera ari zarete aztertzen?

D.G.: 70eko hamarkadan hasi zen jantzigintza (konfekzioa) hona iristen eta jostunak gutxitzen. Ordura artekoa aztertu dugu, batez ere.

Nortzuk eta nola lan egiten zuten jostunek?

E.D.: Denetik zegoen: Gabardina tailer bat egon zen Beasainen, sastreek euren lokalak izaten zituzten, emakume jostun gehienek etxean egiten zuten lan erdi-erdi-kutuan (baina baziren lokalak zituzten bakan batzuk), jostunen akademiak ere bazeuden... Aktibitate handia zegoen.

Esan al daiteke, joskintzak paper berezia izan duela Beasainen?

D.G.: Ez nuke esango beste herri batzuetan baino gehiago izan zuenik, baina, bai; joskintzak garrantzi handia izan zuen herriaren identitatea eta baloreak eraikitzerakoan. Jende askoren ogibidea zen.

Egun, ba al da jostunik edo josteko afiziorik Beasainen?

E.D.: Hor daude Oteak antolatzen dituen ikastaroak, Migdalan neurritan ere egiten dituzte jantziak... Honekin, bide batez langabe daudenei esan nahi genieke, konponketak eginez eta lanen eskusibitate bilatuz, joskintzatik diru batzuk atera ditzaketela, batez ere egun Interneti esker saltzeko dagoen aukerarekin.

Eta bildutakoarekin zer egingo duzue?

D.G.: Bildutakoa plazaratzea da gure asmoa. Dokumental bat egitea gustatuko litzazuke, ohiko liburua argitaratu ordez, jendearengana errazago iritsiko ginatekeela uste dugulako.

E.D.: Eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrizketetan parte hartu dutenei eta aurrerantzean ere ekarpenetarako aukera egongo dela jakinarazi nahi dugu.

Documental

El objetivo es realizar un documental con todo el material recogido, y las entrevistas realizadas.